

Beste Iragarki Ofizial Batzuk

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL EPAITEGIA

IRAGARKIA, 1069/07-1 administrazioarekiko auzi-errekursoari dagokion administrazio-espedientea bidali eta interesatuta dauden beste guztiek epatzekoak.

25303

Pribatuen Iragarkiak

LANTIK, S.A.

IRAGARKIA, zaintza zerbitzua emateko lehiaketari buruzkoa.

25303

IRAGARKIA, sare korporatiboa 3. mailara pasatzeko eta solairuko switcheak berritzeko kontratuaren lehiaketari buruzkoa.

25305

Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

6089

AGINDUA, 2007ko urriaren 4koa, Osasun sailburuarena, Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordea sortzeko dena.

Maiatzaren 24ko 121/2005 Dekretuaren bidez, Osasun Saileko Aholku Batzordeen araubidea ezarri zen aditu en aholkularitza lortze aldera. Aholkularitza horrek aztertuko ditu, batetik, osasun-arazoei aurre egiteko dauden aterabideak, eta bestetik, arazo horiei irtenbide egokiak emateko implikatuta dauden sektoreen interesak.

2002-2010 Euskadiko Osasun Planaren arabera, osasunaren arloan lehentasuna duen jarduera-eremuetako bat osasun mentalari dagokiona da —halaxe aitortu zuen 121/2005 Dekretuak—.

Euskal Autonomia Erkidegoan egindako azterketa epidemiologikoen arabera, osasun-arazo larria osatzen du osasun-mentalak; batetik, morbilitatea oso handia

Otros Anuncios Oficiales

TRIBUNAL VASCO DE DEFENSA DE LA COMPETENCIA

ANUNCIO de remisión del expediente administrativo del recurso contencioso-administrativo n.º 1069/07-1 y emplazamiento de terceros interesados.

25303

Anuncios Particulares

LANTIK, S.A.

ANUNCIO relativo al concurso para prestación de servicios de vigilancia.

25303

ANUNCIO relativo al concurso para paso a nivel 3 de la red corporativa y renovación de los switches de planta.

25305

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

6089

ORDEN de 4 de octubre de 2007, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Consejo Asesor sobre Salud Mental en Euskadi.

Mediante Decreto 121/2005, de 24 de mayo, se establece el régimen de los Consejos Asesores del Departamento de Sanidad con la finalidad de obtener un asesoramiento experto que pondere las diferentes alternativas de solución y los intereses de los distintos sectores implicados en la adopción de las soluciones más adecuadas para afrontar una problemática de salud.

Una de las áreas de actuación sanitaria prioritaria reconocida por el Decreto 121/2005 es la salud mental, en consonancia con lo previsto en el Plan de Salud de Euskadi 2002-2010.

La salud mental, según se desprende de estudios epidemiológicos realizados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, constituye un problema de salud im-

delako, eta bestetik, gaixoaren eta haren senitartekoen bizi-kalitatean eragin handia duen gaixotasuna delako.

Arlo horretan hartu beharreko erabakiak korapilotsuak dira, eta aholku-organo bateko adituen ebaluazioa eskatzen dute. Organo horrek lagundu behar du, hain zuzen ere, gizartean eraginkortasun handiena duten irtenbideak bilatzen eta ezartzen.

Horiek horrela, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.— 1.— 121/2005 Dekretuan xedatutakoaren haritik, Osasun Mentalari buruzko Aholku Batzordea sortzen da. Batzorde horren helburua osasun mentalaren arloan aholku teknikoak ematea izango da.

2.— Osasun Mentalari buruzko Aholku Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Osasun Sailari dago atxikita, baina ez du Sailaren egitura hierarkikoan parte hartzen.

2. artikulua.— 1.— Aholku Batzordearen egiteko nagusia honako hau izango da: osasunaren helburuak lortzeko neurriak proposatzea, 2002-2010 Osasun Planean osasun mentalerako jasotako estrategien eremuan.

2.— Honako egiteko hauek ere izango ditu Aholku Batzordeak:

a) Argibideak eta aholkuak ematea arlo hauetan: lehen eta bigarren mailako prebentzioa, diagnostiko goiztiarra, tratamendu terapeutikoak eta osasunera bideratutako hezkuntza.

b) Laguntza modu ezberdinak antolatzeko aspektuen gaineko argibideak eta aholkuak ematea (lehen mailako atentzioa eta espezializatua). Helburua: laguntzarekin ahalik egokien jarraitzea eta baliabideak zentzuz erabiltzea.

c) Argibideak eta aholkuak ematea arlo hauetan: informazioa, prestakuntza eta zerbitzuen ebaluazioa.

d) Laguntza prozesuen kalitatea monitorizatzeko behar diren adierazleak zehazteko argibideak eta aholkuak ematea. Horretarako, kontratu-programetako berariazko prozesuak zehaztu eta hedatuko dira, eta osasunaren arloko emaitza klinikoak neurituko dira.

e) Esku-hartze sanitarioko programak proposatzea eta, hala behar izanez gero, programa horiek Osasun Sailarekin batera lantzea, honako hauek zehaztuz: helburu operativoak, zerbitzueta premiak, baliabideak eta antolakuntza, 2002-2010 Osasun Planean aurreikusitako helburu orokor eta estrategien eremuan.

f) Egiten diren ebaluazioen emaitzei buruzko argibideak eta aholkuak ematea. Ebaluazio horiek osasun arazo horien egoerari buruzkoak eta prebentziora, laguntzara eta hezkuntzara bideratutako esku-hartze sanitarioaren eraginkortasunari buruzkoak izango dira.

portante por su elevada morbilidad e importantes repercusiones sobre la calidad de vida de los/las pacientes y entorno familiar.

La complejidad de las decisiones a adoptar recomienda una evaluación experta en el seno de un órgano de asesoramiento que colabore en la búsqueda e implantación de las soluciones de mayor eficiencia social.

Por todo ello,

DISPONGO:

Artículo 1.— 1.— Se crea el Consejo Asesor de Salud Mental como órgano consultivo para el asesoramiento técnico en materia de salud mental, en el marco de lo dispuesto en el Decreto 121/2005.

2.— El Consejo Asesor de Salud Mental queda adscrito al Departamento de Sanidad de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin participar en la estructura jerárquica de ésta.

Artículo 2.— 1.— Será función principal de este Consejo Asesor proponer medidas para la consecución de los objetivos de salud en el marco de las estrategias contempladas para la salud mental en el Plan de Salud 2002-2010.

2.— Serán, asimismo, funciones del Consejo Asesor:

a) Informar y asesorar sobre prevención primaria y secundaria, diagnóstico precoz, tratamientos terapéuticos y educación para la salud.

b) Informar y asesorar sobre los aspectos organizativos de los diferentes niveles asistenciales (atención primaria y especializada) para una mejor continuidad asistencial y para el aprovechamiento racional de los recursos.

c) Informar y asesorar sobre sistemas de información, formación y evaluación de servicios.

d) Informar y asesorar en la definición de los indicadores necesarios para monitorizar la calidad de los procesos asistenciales, facilitando la definición y extensión de los procesos singulares en los contratos programa y la medición de los resultados clínicos en términos de salud.

e) Proponer y, en su caso, colaborar con el Departamento de Sanidad en la elaboración de programas de intervención sanitaria, definiendo objetivos operativos, necesidades de servicios, recursos y su organización en el marco de los objetivos generales y estrategias previstas en el plan de Salud 2002-2010.

f) Informar y asesorar sobre los resultados de las evaluaciones que se realicen sobre la situación de estos problemas de salud y la efectividad de las intervenciones sanitarias destinadas a la prevención, asistencia y educación en el área de la salud mental.

g) Hasita edo hastear dauden ekintzak aztartzea, osasun-premien eta esku-hartze sanitarioen eraginkortasunaren bilakaeraren arabera. Hori guztia Osasun Saileko zuzendaritza-organoek onartuko dute gero.

h) Egiten ari diren edo gerora egingo diren ikerketa-lerroei buruzko argibideak eta aholkuak ematea, eta jarduera-arlo horretan indarra hartzan ari diren teknologien berri ematea.

3. artikulua.— Osasun Mentalari buruzko Euskadiako Aholku Batzordea lehendakariak, idazkariak eta 17 kidek osatuko dute. Osasun sailburuak izendatuko ditu guztiak.

4. artikulua.— Kideak honako banaketaren arabera izendatuko dira:

a) Kide 1, Osasun Sailaren ordezkari.

b) Kide 1, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkari.

c) Kide 1, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko droga-menpekotasun arloaren ordezkari.

d) Kide 1, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren ordezkari.

e) 10 kide, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun mentaleko zerbitzu sanitarioen —ospitalekoak zein ospitalez kanpokoak— ordezkari.

f) Kide 1, Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarteen Federakuntzaren (FEDEAFES) ordezkari.

g) Kide 1, Asociación de Psiquiatría Comunitaria y Salud Mental (OME-AEN) Elkartearren ordezkari.

h) Kide 1, Familia- eta Komunitate-Medikuntzako Euskal Erakundearren (Osatzen) ordezkari.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 4a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.^a INCLÁN IRIBAR.

g) Analizar las acciones ya emprendidas o a emprender, según la evolución de las necesidades de salud y de la efectividad de las intervenciones sanitarias, todo ello para su posterior aprobación por los órganos directivos del Departamento de Sanidad.

h) Informar y asesorar sobre líneas de investigación en curso o que se prevean en un futuro, así como informar de la existencia de tecnologías emergentes en este campo de actividad.

Artículo 3.— El Consejo Asesor de Salud Mental estará compuesto por un Presidente, un Secretario y 17 Vocales, designados por el Consejero de Sanidad.

Artículo 4.— La designación de los Vocales se realizará teniendo en cuenta la siguiente distribución:

a) 1 vocal en representación del Departamento de Sanidad.

b) 1 vocal en representación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

c) 1 vocal en representación del área de drogodependencias del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

d) 1 vocal en representación del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

e) 10 vocales en representación de los servicios sanitarios hospitalarios y extrahospitalarios de salud mental de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

f) 1 vocal en representación de la Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares y de Enfermos Psíquicos (FEDEAFES).

g) 1 vocal en representación de Asociación de Psiquiatría Comunitaria y Salud Mental (OME-AEN).

h) 1 vocal en representación de la Sociedad Vasca de Medicina Familiar y Comunitaria-Osatzen.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de octubre de 2007.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.^a INCLÁN IRIBAR.